**Espediente mota: Administrazio kontratazinoa**

**Kontratua: IRAGARKIAK ARGITARATZEKO KONTRATAZIOA. Prozedura negoziatua publizidadeagaz.**

**Espediente zenbakia: 2011-10**

# KONTRATAZINO MAHAIAREN BILKURAKO

# AKTA

1) **Bilkurari buruzko datuak**

- Bilkura eguna: 2010-11-23
- Ordua: 09:00
- Lekua: Intxausti kaleko udal eraikineko batzar gela
- Kontratuaren xedea: BERMEOKO UDALEKO IRAGARKIAK ARGITARATZEKO KONTRATAZIOA.
- Jardunbidea eta esleipen modua: PROZEDURA NEGOZIATUA publizidadeagaz.
- Hedabidea eta argitarapen ofizialaren data: 2010-10-27 BAO/BOB.

2) **Bertaratu diranak**

. Mahaiburua: ASIER GABANTXO LARANDAGOITIA zinegotzi Jª

. Mahaikideak:

JUAN KARLOS GOIENETXEA BEITIA zinegotzi Jª

MIRELUR URIONDO ISPIZUA zinegotzi Aª

EDURNE URRUTIA URIARTE Aª Udal Kontuhartzailea.

MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO Jª Idazkaritzako Teknikaria, Udal Idazkariaren ordez.

. Mahaiko idazkaria: NESTOR LARRUZEA ORMAZA Jª

Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxa: 94 617 9140
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

- Beste batzuk:

- **Bilkuraren edukia eta erabakia**

Kontratazino arauetan eta administrazino baldintza zehatzen agirian zehaztutakoa betez, bilkurak helburu izan eban lehiatzaileek aipatutako baldintza agiriko 20. klausulako “A” kartazalean aurkeztutako eskaintzetako dokumentuen kalifikazioa.

- Parte hartzeko jasotako eskariak eta dokumentazioa: Parte hartzeko aurkezteko epe barruan, honako hauek jaso ziran:

Eskaintza sarrera erregistro data/zk.: 2011-11-11/ 16648 zenbakia. Bilboko 4800010 posta bulegoan aurkeztua 2010eko azaroaren 10ean eta faxez iragarrita egun berean Udal Bulegoetara.
Titularra: ZOSMAMEDIA SA

Eskaintza sarrera erregistro data/zk. 2010-11-11/ 16622
Titularra: TALLER 2A

Eskaintza sarrera erregistro data/zk. 2010-11-11/ 16660.
Titularra: MEDIASAL 2000

Eskari guztiak epearen barruan aurkeztu dira eta Kontratazio Mahaiak, Dokumentazioari jagokon A) gutunazaletako agiriak aztertzen dauz, ondorengo emaitzagaz:

- TALLER 2A; ondorengo akatsak detektatu dira:

Kontratazio prozesu honetan parte hartzeko baldintza kreditatzen dauan agiria ez dau aurkeztu.

Aurkeztutako agiriak konpultsatu barik dagoz.

- MEDIASAL 2000, ez dauka akatsik.
- ZOSMAMEDIA SA, ez dauka akatsik.

Guzti honen aurrean, Kontratazio mahaiak zera erabaki dau:

Hiru (3) laneguneko epea emotea TALLER 2A enpresari aipatutako akatsak zuzentzeko, hórrela egin ezean, bere partehartze eskaria bertan behera geratuko dala ohartaraziz.

Aipatutako epea agorturik, mantentzen diran lizitatzaileei jagokon gonbidapena bidaliko jakie, negoziazio epea zabalduz. Negoziazio prozesua amaiturik, B gutunazala aurkezteko epea irekiko da, horren barri lizitatzaileei emonaz, bere sasoian.

Bilkuraren gaia diran egitekoak amaituta, mahaiburuak 09:15 etan amaitutzat jo eban bilkura, eta mahaiko idazkaria nazan aldetik, bilkuraren akta egin dot.

MAHAIBURUAK — IDAZKARIAK

Izenpea — izenpea